

Donostiako nekazaritza sektoreko ekintzaileentzako baratzeak errendimendu betean daude



(Mari Jose López, Caritaseko boluntarioa, Xabier Jorrín, Cáritaseko arduraduna, Marisol Garmendia, ekonomia bultzatzeko zinegotzigoa, eta Begoña Julián, nekazaritzako ekintzailea)

Nekazaritza sektoreko hainbat ekintzailek hartu dituzte Sustapen Ekonomikoko udal-arloak Donostiako Sustapenaren bitartez eta Urban Lur proiektuaren barruan baratza profesional bihurtutako Altzako sei partzelak. Bazterketa-arriskuan daudenekin lan egiten duen Cáritas elkarteak da horietako bat. Baratzetako lurra prestatu eta ereiteko laguntza tekniko pertsonalizatua jaso dute nekazari berriek, eta laguntza teknikoa –pertsonala nahiz taldekoa– ere izango dute ekoiztutako elikagaiak merkaturatzeko.

Marisol Garmendia Sustapen Ekonomikoko zinegotziak adierazi duenez, “ekimen hau sortu dugu gure hirian nekazaritza-sektorea aktibatzen eta nekazaritza-proiektu bat kudeatzeko prest dauden ekintzaileei lan-eskaintza bat emateko. Hala, lurra lantzeko eremu eta azpiegiturak, lurra lantzeko tresnak, nekazaritzako prestakuntza teknikoa eta produktuak

merkaturatzeko laguntza eta aholkularitza eskaini dizkiegu. Horrekin, bi helburu lortu nahi ditugu: batetik, autoenplegua sustatzea eta, bestetik, merkaturatzera bideratutako baratzako produktuen tokiko ekoizpena areagotzea”.

Auditx Akularren (Altza) daude sei partzelak, eta 2,7 hektareako eremua okupatzen dute, 4.000 eta 6.000 metro koadro arteko sei partzelatan banatuta. Ur-hornidura, 380 metro koadroko negutegi bat eta ibilgailu mekanikoentzako sarbidea dituzte guztiek. Horrez gainera, nekazaritza arloko aholkularitza teknikoa eskaini zaie erabiltzaileei, baratzak martxan jarri ahal izateko.

Nekazaritza arloko bost ekintzailek ustiatzen dituzte sei partzelak: 30 eta 60 urte bitarteko lau gizonezko eta emakumezko bat. Donostian bizi dira guztiak, eta gehienek esperientzia dute nekazaritzan. Horietatik bik unibertsitate mailako ikasketak dituzte, eta batzuek nekazaritza arloko prestakuntza-ikastaroak egin dituzte. Partzeletako bat Cáritasek kudeatzen du, gizarteratze-lanetarako.

Urban Lur programaren bitartez, nekazaritza-partzelak lagatzen dira hiru urterako. Alokairu-prezioarekiko % 100eko hobaria lor daiteke lehenengo urtean. Donostian kontsumitzen diren baratzako produktuen % 3,75 bakarrik ekoizten dira hirian. Hain zuzen, horregatik jarri zen martxan Urban Lur programa, eta, horrez gainera, irteera bat eskaintzen die ekintzaileei eta langabetuei, zeintzuk lehentasuna baitute emakumeek bultzatutako proiektuekin edo ekoizpen ekologikoaren alde egiten dutenekin batera. Hori dela eta, hirian nekazaritza eta, halaber, barazkien autohornikuntza sustatzea da programaren helburua.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus